

5.– MEDUSA'REN BURUA (Argos)

Akrisio zan Argos'ko erregea eta azti batek etorkizuna agertu eutson: Danae bere alabearen seme batek kenduko eutson bizia. Aita izan eta laster aitita izateko egoan Akrisio'rentzat atsekabe aundia zan ori.

Zelan iges egin etorkizun baltz orreri?

Lenengoz aitita izan arte geldid geldi eta pentsa eta pentsa urduri egoan.

Jaio zan alabearen lenengo seme ori eta aitita pozik egon bearrean artega ikusten zan.

Danae'k Perseo ipiñi eutson Jupiter'en egitez lortua zan seme jaio-barriari.

Akrisio erregeak erabagi gogorra artu eban azkenean. Bere mirabeari alabea eta onen semea, Danae eta Perseo, kutxa baten sartu eta itsasora botateko agindu eutson.

Ur-gaiñean ara ta onan ebillan kutxa eta azkenean leorrera biurtu zan, Polidetes'ko lurraldean. Jakin eban ori bertako Erregeak eta ama-semeak beragana eroateko agindua emon eban eta ondo zaintzeko esan eutseen bere morroi eta mirabeari.

Danae emakume ederra zan eta Polidetes'ko erregea beragaz maitemindu zan, Danae'k ezkontzeari ezezkoa emon eutson, Jupiter'egandik eukan semea zaindu bear ebalako.


Urteak aurrera eta, Perseo, Danae'ren semea, gazte mardul biurtu zan.

Polidetes'ko erregea geroago ta artegeago egoan eta Perseo ez eban bego onez ikusten eta mutil oneri agindu eutson medusaren billa joateko eta onen burua ebagita ekarteko. Ziur egoan erregea ez ebala bizirik urtengo.

Perseo ezelako bildur barik joan zan agindu ori betetera. Ez ekian medusa mamu ain bildurgarria zanik. Jupiter'ek lagun bi emon eutsozan: Minerba ta Merkurio. Onak esan eutsoen Perseo'ri, Grea izeneko iru atsoren kobara joan bear zala lenengo eta an esango ebela Medusa non egoan, baiña aide ziran lez, maltzurkeriz atera bear zala albiste ori.

Ibillaldi luzea egin ondoren, eldu zan Perseo iru atsoen kobara. Arrigarriak ziran! Irurak begi bakar bat eukan batek ikusteko, beste biakitsu geratzen ziran artean.

Urreratu jakin Perseo astiro-astiro, eta aldaketa egikeran begi bakararra berak artu eban. Irurakitsu geratu ziran garrazi aundiakaz begia eskatzen, baiña Perseo'k emon gura ez! Errotekotan, lenago Medusa non bizi zan esan bear eben.



dana lortu eban Perseo'k eta adoretzu urreratu zan Medusa'ren bizilekura.

Sartu zanean, lotan aurkitu ebazan medusa ta lagunak eta ezpataz samea ebagi eutson Medusa'ri eta ekarren zakuan burua sartu. Beste barik, ariñeketan alde egin ebazn. Etorri jakozan atzetik, baiña Perseo'k oiñetako egodunakaz ariña-go egiten eban.

Perseo etxeratu zanean, Polidetes'en jauregira joan zan eta onen aurrera eroan eben. Agindua bete ebala esan eutson Perseo'k eta sakutik atera eta Medusa'ren burua erakutsi batera.

Lurralde barri onetan, joko batzutan Perseo'k bere trebetasuna erakuti nai izan eban eta diskoa jaurti eban norgeia-goan. Baiña aizea zakarra zan eta okertu egin zan diskoaren bidea eta an egoan agure bat il eban. Agure ori Akrisio bera zan. Orelan bete zan aztiak esana, Perseo'k bere aitita ilgo ebala...

OLAZAR'tar Martin'ek